

## INFORMAZIO-ZIRKULARRA

Gasteizen, 2018ko irailaren 4an

### **Kontratazioan egonkortasuna sustatzeko laguntzak**

#### **1.- Deialdiaren xedea**

Gasteizko enpresetan 45 urtetik gorako enplegu-egonkortasuna sustatzea.

#### **2.- Lagundu daitezkeen ekintzak**

- Gasteizko lantokietan 45 urtetik gorako aldi baterako kontratuak lanaldi osoko edo partzialeko kontratu mugagabe bihurtzea.
- Laguntzek lanaldiaren ehuneko 50 barne hartuko dute, gutxienez.

Ekintzak 2018/05/17tik 2018/09/28ra bitartean egindakoak izango dira.

#### **3.- Baldintzak**

Kontratatutako pertsonen baldintza hauek bete behar dituzte:

- Deialdiaren urte naturalean 45 urtetik gora izatea.
- Gasteizen errolatuta egotea, gutxienez ere aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtu aurreko 6 hilabeteetan.

#### **4.- Laguntzen zenbatekoa**

Urteko soldata gordinaren ehuneko 40koak izan daitezke, 7.000 €-ko mugarekin, eta lanaldiarekiko proportzioan.

#### **5.- Eskaerak egiteko epea**

2018an: **2018ko irailaren 28ra** arte.

Hemen kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak:

[http://www.araba.eus/botha/Boletines/2018/056/2018\\_056\\_01744\\_E.pdf](http://www.araba.eus/botha/Boletines/2018/056/2018_056_01744_E.pdf)